

» TELEGRAMA

Abenduaren 23an, 18:00etan, Aviron Bayonnais taldearen errugbi partidaren karietara Baionako **Jean Dauger zelaian Olentzero** ekitaldia izanen da *STOP* Donostiako Tabakalerak **Costa-Gavras** eta **Imanol Uribe** zinemagileen filmen zikloa eskainiko du *Zinema Solasaldiak* ekimenaren karietara abenduaren 10etik otsailera bitartean *STOP* Abendutik otsailera bitartean *Uhartearen altxorra* erakusketa irekita dago **Bilboko Azkuna zentroan**: haur eta gazteen ipuinetako ilustrazioak ditu ardatz. Idazle, ilustratzaile eta ipuin kontalariekin tailerrak egiteko aukera ere zabalik dago *STOP*

» KONTZERTUA

Klasikoaren edertasun lasaia



Montse Auzmendi

La Bayadère

BALLET NAZIONAL ERRUSIARRA

Zuzendaria: Sergey Radchenko.
Konpositorea: Léon Minkus.
Koreografoa: Marius Petipa.
Bilboko Euskalduna Jauregian.
Azaroaren 27an.

Azkenaldi honetan ohikoak dira apurtzaileak, klasikoan bertsiio berriak, modernitatea nonahi, baina aitortu behar dugu berrikuntza ahaltsu horien artean bake psikologiko estilistikoa behar dugula noizean behin, eta holako momentu terapeutikoa bilatu genuen Ballet Nazional Errusiarraren emanaldian.

Titulu klasiko bat, Léon Minkusen *La Bayadère*, Marius Petipa handiaren koreografia eta XIX. mendearen *mise en scène* hiperklasikoa nahikoak izan ziren saio dotore eta lasaigarria buruzteko. Oso gustagarria.

Egia da Sergey Radchenkok zuzentzen duen talde hau ez dagoela bere une onenean, nabariak dira gabezi ekonomikoak (jantzieta, dekoratuetan, eta abar), baina horren guztiaren gainetik benetako balletaren magia inguruan eta airean zebilen, obrak irauten duen ordu eta erdi horretan giro erromantiko, dekadente eta polit horretan murgiltzeko parada izan genuen, aspaldiko bainuetxe batean egongo bagina bezala. Nahikoa, ikuskizun hau gomendatzeko.

1877. urtean estreinatutako obra eder honek denetik dauka erakargarri izateko. Amodioa, pasioa, heriotza, justizia, etika miresgarria... dena aurki dezakegu. Bestalde, Marius Petiparen koreografia elegantea oso ondo egokitu zen istorio exotiko honetara, XIX. mendeko India inperialean kokatua.

Ballet Nazional Errusiarraren dantzariak, teknikoki oso trebeak, dantza adierazkorra eskaini zuten, mistikoa esango nuke, oso aproposa entzuleak beste garai batera eramateko. Esan bezala, terapeutikoa. ■

